

DESKRIBAPENA

Gu Teknolimits taldea gara eta gure proiektua azaldu nahi dizuegu. Guk asmatutako proiektua hasiera batean arrakasta gutxi izango duela badirudi ere, erabiltzen duzun heinean proiektuaren erabilgarritasun mailaz konturatzen zara. Bestalde, produktua oso eroso da erabiltzen duen pertsonarentzat.

Baina, nolakoa da gure proiektua?

Eskola guztietako gelatan gutxienez arbela bat egoten da. Hasiera batean, pentsatu genuen arbelak garbitzeko mekanismo bat asmatzea. Baina honen zailtasunak eta teknologiaren beharrak ikusiz konturatu ginen proiektu hori aurrera ateratzea oso zaila izango zitzagula. Beraz, zerbait praktikoago egitea pentsatu genuen, kontsumitzaileen erosotasun eta etorkizunean izango lituzketen gastuei erreparatuz. Horregatik, proiektu sinpleago batean murgiltzea erabaki bagenuen ere, esentzia ez zuen galdu.

Gure proiektuaren helburu nagusia klarion- edo errotulatzaila-arbelak garbitzea da. Nahiz eta arbela garbitzeko gailua egon, normalean txikia eta zikina izaten da. Horregatik, gure proiektua, garbigailu handiagoa egitea da, klariona zein errotulatzaila arbelak garbitzeko.

Asmatutako produktuaren formaz hitz egiterakoan, esan behar dugu T forma duela horrela erosoagoa izango da erabiltzailearentzat arbelaren goiko partea garbitzeko ez duzulako inongo arazorik izango eta gaur egungo garbilatzaileak ez bezala, eskuak ez dituzulako zikinduko. Bestalde, tramankuluaren neurriak 30 cm luzez eta 5 cm zabaleraz izango dira. Alde batetik, klariona garbitzeko oihala izango du eta beste aldetik belakia. Tamaina desberdineko heldulekuak aurkitu ahal izango dituzu gure enpresaren Webgunean (www.teknolimits.es). PVCs eginiko kirtena erabiliko dugu oso pisutsua ez izateko eta material sendoa denez erraz puskatzeko materiala ez delako.

Prezioari dagokionez zenbait promozio aurkeztuko dizuegu:

- Tramankulu bat erosten baduzu: 9,99€
- Bi tramankulu erosiz gero: 15,99€

Gainera, garbitzeko tresnaren barruan klarionak eta errotulagailuak egongo dira. Gure produktuak arrakasta lortzeko promozio berezi bat lehenengo 100 erosleei egingo diegu: ordeztuko sei oihal eta sei belaki oparitutako ditugu gure produktua saltzean. Bestalde, ondorengo erosleei hiru oihal eta hiru belaki oparitutako ditugu garbigailua erostean.